

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Ikaslanek hainbat baliabide fisiko behar ditu bere proiektua aurrera eramateko. Horien artean, formakuntza eta bilerak egiteko bulego bat dago. Bulegoan lanerako altzariak izango ditugu, adibidez, mahaiak eta aulkiak. Gainera, tresna teknologikoak ere behar ditugu, hala nola ordenagailuak, telefonoa, inprimagailua eta proiektorea. Horretaz gain, material didaktikoa erabiltzen ditugu, koadernoak, boligrafoak eta liburuak.

Ikaslanek baliabide inmaterialak ere behar ditu bere jarduera garatzeko. Webgune propio bat dugu, non eskaintzen ditugun zerbitzuak eta kontakturako informazioa azaltzen diren. Gainera, sare sozialetan presentzia dugu, batez ere Instagramen eta LinkedIn-en, gure zerbitzuak zabaltzeko eta bezeroekin harremanak izateko. Baliabide hauen bidez, jendeari informazioa helarazten diogu eta beren zerbitzuak ezagutarazten dituzte. Halaber, webgunea mantentzeko domeinu eta hosting zerbitzu bat ordaintzen dute.

Ikaslanen giza baliabideak taldeko kideek osatzen ditugu. Taldekide bakoitzak bere arloan laguntzen dugu: batak hezkuntza eta irakaskuntza arloan esperientzia du, beste batek kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa egiten du, eta hirugarren batek komunikazioan eta marketinean laguntzen du, sare sozialak eta webgunea kudeatuz. Guztiek partekatzen dugu Ikaslanen helburua, komunitateari zerbitzu onena ematea.

Ikaslanek finantza-baliabideak behar ditu proiektua mantentzeko eta aurrera eramateko. Hasierako inbertsioa taldekideek jarri dugu, eta Zumaiako Udalak espazio bat utzi digu, gastuak murriztuz. Gainera, webgunearen domeinua eta hosting zerbitzua ordaintzen dugu, eta noizean behin ekitaldi edo formazio-saioetarako aurrekontu bat behar izaten dugu. Ikaslanen baliabide hauek guztiak elkarrekin koordinatuta, proiektuak aurrera egitea eta zerbitzu egoki bat eskaintzea lortzen dugu.